

MATTIN ALDAIA OLASAGASTI jaunak, Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateko Administrazio Kontseiluko idazkariak, honako hau

ZIURTATZEN DU

Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak, 2019ko abenduaren 12an agindako bilkuran ondorengo ERABAKIA hartu zuela:

1.- Atzeko kargako eta 14-16m³ko kaxa duen ibilgailu baten hornidura alokairu bidez kontratatzeko behin behineko esleipena erabakitzea.

Aipatu zerbitzua kontratatzeko espedientea 2019ko urriaren 4an egin zen Administrazio Kontseiluak (Kontratazio organoa) onartu zuen. SPKL-ak bere 156 artikuluan arautzen duen prozedura irekia tramitatu eta lizitazioaren iragarkia 2019ko urriaren 4an bertan argitaratu zen Garbitaniaren web gunean eta Euskadiko Kontratazio Plataformako kontratzailearen profilean.

Eskaintzak jasotzeko epearen barruan eskaintza bakarra jaso zen:

1. Envirorent XXI, S.L.

Eskaintza hau kontratazio mahaia osatzen duten zerbitzu juridikoak, Ingurumen teknikariak, langileen ordezkarri batek, koordinatzaile batek, Usurbilgo Udal Zerbitzu saileko zinegotziak eta Hernaniko Udal Ingurumen saileko zinegotziak, aztertu dute.

Lehenengo eta behin pleguetan eskatzen diren administrazio dokumentuak behar den bezala aurkeztu diren aztertu da eta ondoren dokumentazio teknikoaren gutun azala irekitzera jo da.

Eskaintzan aurkeztutako dokumentazioa nahikoa izan da balorazio teknikoa burutzeko. Proposamen teknikoaren balorazioari dagokionez, ondorengoak baloratu dira: zerbitzuaren antolaketa, koordinazioa eta lan metodologia (mantenu zerbitzua barne); ibilgailuaren antzinatasuna; ibilgailuaren kabinaren altuera; ibilgailuaren ezaugarriak; aberien aurrean erantzuteko ahalmena eta ergonomia, erosotasuna, prebentzioa eta osasun zaintza baloratu dira. Balio iritzien bidez aztertutako dokumentazioari dagokionez, eskaintzaileak 41 puntu lortu ditu.

Eskaintza bakar honekin puntuen kalkulua burutu da, Plegu Administratiboetako 16. klausulan zehazten den moduan.

Eskaintzaileak, lizitazio gehienezko prezioaren (3.700€/hileko BEZ kanpo) azpitik egin du bere eskaintza (3.490€/hileko BEZ kanpo) beraz, eskaintza ekonomikoari 50 puntu dagozkio.

Eskaintza	Eskaintza ekonomikoa	Zerbitzua eta lan metodologia	Ibilgailuaren antzinatasuna	Kabinaren altuera	Ibilgailuaren deskribapena	Aberien aurrean erantzun ahalmena	Ergonomia eta erosotasuna	PUNTUAZIOA GUZTIRA
1	50	5	5	15	5	8	3	91



Taula honetan zehazten den moduan, eskaintzaileak guztira 91 puntu lortu ditu.

Oro har aurkeztutako eskaintzak dagozkion pleguetan eskatutakoa betetzen ote duen aztertu da. Azterketa horren ondorioz ziurtatzen da aurkeztutako eskaintzak betetzen dituela eskatutako betebeharrak.

Eskaintza egokia izan dela kontuan izanik, kontratazio mahaiak Administrazio Kontseiluari Envirorent XXI, S.L. esleipenduntzat hartzea proposatzen dio.

Gauzak horrela, Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak abenduaren 12an burutu bilkuran, kontratazio mahaiaren eskariz aho batez honakoak adosten ditu:

Lehenengoa.- Garbitania Zero Zabor S.M.k kabina baxudun ibilgailu baten hornidura alokairu bidez Envirorent XXI S.L.ri esleitzea 3.490€/hileko salneurrian (BEZ kanpo).

Bigarrena.- Envirorent XXI S.L. enpresari erabakia jakinaraztea eta eskatzea agiri hauek (administrazio klausula partikularren 19. puntuan jasotzen direnak) aurkeztu ditzan jasotzen diren agiriak eskaera hau jaso eta hurrengo egunetik hasita hamar (10) lanegunen barruan:


- Enpresariaren jarduteko gaitasun osoa ziurtatzen dutenak.
- Eskatzen den kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak.
- Eskatzen den kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak.
- Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen dituztenak.
- Kontratua gauzatzeko beharrezko dituen eta atxikitzaera konprometitu den baliabideak benetan badituela ziurtatzen duten agiriak.
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela egiaztatzea.
- Seguruei dagokienez, ezaugarri teknikoen pleguan adierazitakoen agiriak.
- Behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duen agiria.

Hirugarrena.- Garbitania Zero Zabor S.M.ko gerenteari ahalmena ematea eskatutako dokumentazioa aurkeztu denean kontratua gauzatu dezan.


10 laneguneko epealdiaren barruan Envirorent XXI S.L. enpresari eskatutako dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkeztu ditu.

Horiek horrela, eta Administrazio Kontseiluak horrela erabakita kontratua esleitzat ematen da eta Envirorent XXI S.L. enpresari jakinarazpen hau jaso eta hamabost lanegun barruan kontratua sinatzera Garbitaniara etortzeko dei egiten zaio.

Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, agiri hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena.



Hernanin, 2019ko abenduaren 26an

O.I. 

LEHENDAKARIA



IDAZKARIA